

DIRU-ITURRIAK

Diru sarreren funtzioari dagokionez, eskaintzen diegun produktuaren truke, gure bezeroak zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden jakitea garrantzitsua da. Hau da, gure produktuak, bezeroak kontuan hartuta, zenbateko prezioa izango duen zehaztea. Horretarako, jakin behar da, funtsean, bi diru-sarrera mota daudela:

- Ordainketa bakarreko diru-sarrerak
- Ordainketa errepikariak

Gure enpresak bi ordainketa mota hauek onartuko ditu; gure produktua epe luzeetan ordaindua izatea edo berehala eta garaiz, hau da, ordainketa bakar batean.

Egitasmo guztietan bezala, dirua beharrezkoa da. Dirua hasierako inbertsioak egiteko, hazi ahal izateko, ezustekoei aurre egiteko, kostuak ordaintzeko, enpresa zeharoan iraun ahal izateko... erabiliko da. Baina nondik lortuko du *Alcohol Free* enpresak finantzazioa?

Nondik aterako ditugu diru-sarrerak?

- Hasieran, estatuaren diru laguntza edota maileguetatik. Baita, publizitatearen bitartez, beste enpresa batzuekin akordioak eginda edota hainbat ebento eginda.
- Bestetik, diru-sarreretatik. Hauek salmenta-prezioaren araberakoak izango dira:

Gure produktuaren prezioa gutxi gorabehera 16.000€-koa izango da. Enpresak 14.000-15.000€-tan erosiko ditu kotxeak, eta alkoholimetroak 30€-tan. Horregatik, gure etekinak gutxi-gorabehera 1200€-koak izango dira. Etekin horiek gure enpresan berrinbertituko ditugu, langileen soldatak eta beharrezko gastuetan.

